



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

Hilaren 27an **jokatuko** **da Orion Euskal Herriko** **Eskolartekoaren finala**

Herraldeetako finaleko festak ospatu dira azkenengo asteotan, eta horien ostean Euskal Herrikoaren txanda ailegatuko da. Ekainaren 27an jokatuko da aurtengo finala Orion. Egitarau oparoa duen eguna da; finalaz gain, bazkaria, musika emanaldiak eta giro ederra izango baitira. Bertara hurbildu nahi duenarentzat autobusak antolatzen ari gara.

Goizeko 11:00etan hasiko da Orioko pilotalekuan aurtengo Euskal Herriko Eskolarteko finala. Bertan herrialde bakoitzeko txapeldunak eta txapeldunordeak hartuko dute parte. Maialen Lujanbiok aurkeztuko du saioa eta Sustrai Colinak, berriz, txapela jantziko dio irabazleari. Biek ala biek oso ongi dakite Eskolartekoan parte hartzea zer den eta oraingoan ere ez dute bertsolari berriein egoteko aukera galdu nahi izan.

Behin finala amaituta, bazkaria egingo da herriko plazan. Euskal Herriko Nekazaritza eta Ekoizle Ekologikoen Kontseiluarekin elkarlanean antolatutako bazkaria izango da, bertako produktu ekologikoekin egina.

Bazkalostean festak segida izango du. Hasteko, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina librean arituko dira. Horien ondoren musikak hartuko du protagonismoa, Keshala eta Bi Bala taldeek amaiera emango baitiote egunari.

Bi musika taldeetako partaideek ere ongi ezagutzen dute Eskolartekoa. Keshala taldeko Malen Amenabar, Kattalin Barcena, Leire Amenabar eta Arrate Gazteluk gaztetxotan kantatu izan dute Eskolartekoan, eta bertan sortzen den giroa oso gustuko dute. Era berean, Bi Bala taldeko Aitzol Barandiaran eta Iñaki Gurrutxaga ere Eskolartekoan aritutakoak dira eta gogo biziz itxiko dute Orioko jaiegun berezia.

Txartelak eta autobusak

Bazkarirako txartelak salgai daude www.bertsosarrerak.eus webgunean, 10 euroko prezioan. Bazkarirako txarteekin batera, Eskolartekoaren kamiseta koloretsuak ere eskuragai daude webgune berean, biak 15 euroko prezioan.

Oriara joateko herrialdeetatik autobusak antolatuko dira. Bertso-eskola edo talderen batek autobusean izena eman nahi badu, bere herrialdeko Bertsozale Elkartearekin harremanetan jartzea besterik ez du.



ANDONI EGAÑA
Amasa-Villabona,
2015-V-9

Gaia: Haurtzaroan ametsak sortu; helduaroan burutu edo behintzat saiatu; eta zahartzaroan, zer?

Ume nintzela ai zenbat amets amets finak hala ede garai haietan ilargiraino iristea nuen xede. Pentsatzen nuen "Hirugarrengo mailako neska hau nere" neure burua ikusten nuen ia Atotxan errege. Hamaika amets egin nituen ta ez da bete batere.

Gazte garaian plazarik plaza hasi nintzela kantuan amets handiak eiten nituen izarapean altuan. Gero txapelak iritsi ziren bertso eman ta hartuan ez dakit onik egin zidaten eduki hori kontuan ametsa hustu egiten baita betetzen den momentuan.

Ume garaian ilusioa izaten da irakiten helduaroan jarduten dezu zeure lanei eragiten ta zahartzaroan ilusioen mundutik zergatik irten? Ez naiz halako gizon etsia ez horren pertsona kirten zahartuta ere segi nahi nuke amets berriak egiten.



Egun osoz jarduerak izango ditu Eskolarteko finalak.//XDZ

Emozioa eta umorea landuko dira *Ahoa Bete Hots* jardunaldietako seigarren edizioan

Emozioak eta umorea ahozkotasunean izenburupean, Ahoa Bete Hots jardunaldiak egingo dira Amasa-Villabonan uztailaren 1etik 3ra. Mintzolak antolatuta, seigarren ediziora iritsi da ahozkotasunarekin lotutako alorrak aztertzen dituen ekimena.

2006an egin zen bertsozaletasunaren ikerketa soziologikoaren emaitzen arabera umorea da bertsozaileen %60k bertsolariengan gehien estimatzen duten ezaugarria. Halaber, antzerki, kantu zein ipuin kontakizunetan umoreak hartzen duen lekua ez da txikia. Baina ahozko generoek poza ez ezik bestelako emozioak ere eragiten dituzte: haserrea, tristura eta beldurra.

Emozioak eta umoreak ahozkotasunean duten tokia aztertuko dituzte aurtengo *Ahoa Bete Hots* jardunaldietan. Seigarren ediziora ailegatu da Mintzolak antolatzen duen ekimena, Bertsozale Elkartea, Euskal Kantuzaleen Elkartea, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea eta Ipuin Kontalari Taldearen laguntzarekin.

Irakasleak, aurkezleak, aisialdiko begiraleak, gurasoak, bertsolariak, antzezleak, ipuin kontalariak, kantariak, bertsolariak irakasleak edo jendaurrean ari den edonorentzako jardunaldiak dira. Azken finean, ahozko generoekin gozaten duen edozeinek zabalik ditu ateak.

Ahoa Bete Hots jardunaldietan izen-ematea ekainaren 4tik 22ra egin daiteke, www.mintzola.eus webgunean edo (0034) 943 693870 telefono zenbakian. Bertsozale Elkarteko bazkideentzako matrikula 50 eurokoa da.



Hiru egunez luzatuko dira *Ahoa Bete Hots* jardunaldiak.//XDZ

Emozioak eta umorea ahozkotasunean

UZTAILAK 1

- 09:15 - 10:15 **Emozioen kontrola jendaurrean.** Amaia Vazquez, psikologoa.
- 10:15 - 11:15 **Ipuingintzaren emozioak.** Itziar Zubizarreta, Bularretik mintzora proiektuaren arduraduna. Galtzagorri Elkartea.
- 11:45 - 12:45 **Euskal Irria.** Asisko Urmeneta, marrazkilaria.
- 12:45 - 13:30 **Marrizkirriatutako bertsoak.** Bertso eta marrazki saio berezia. Asisko Urmeneta marrazkilaria eta Nerea Ibarzabal eta Unai Iturriaga bertsolariak.

Aurkezlea: Juan Luis Aranburu, Kantuzale Elkartea

UZTAILAK 2

- 09:00 - 10:00 **Bertsolaritza praktika emozional gisa.** Jone Miren Hernandez, EHUko antropologia irakasle eta ikertzailea.
- 10:00 - 11:30 **Umorea eta bertsolari txapelketak.** Lorea Arburua, *Bardoak* txapelketaren antolatzailea; Imanol Epelde, *Putzuzuloko* txapelketaren antolatzailea; Oxan Altuna, *Tabernetako* txapelketaren antolatzailea.
- 12:00 - 13:00 **Demodé quartet: kantagintza eta umorea uztartu dituen esperientzia.** Hitzaldi kantatua. Joli Pascual, kantaria.

Aurkezlea eta moderatzailea: Itziar Irigoien, *Ahoa Bete Hotseko* batzorde kidea

UZTAILAK 3

- 09:00 - 11:00 **Clown tailerra. Umorea eragiteko ariketak.** Tailerra. Iosu Florentino, clown-a.
- 11:30 - 13:30 **Nola landu emozioak antzerkian.** Tailerra. Ander Lipus, antzezlea eta antzerki zuzendaria

Aurkezlea: Eñaut Gantxegi, Antzerkizale Elkartea

Gipuzkoa Bertsoan amaituta, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren txanda da



24 saio izan ditu Gipuzkoa Bertsoan ekimenak.//XDZ

Maiatzaren 9an jarri zen martxan *Gipuzkoa Bertsoan*, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkapen fasea, eta hilaren 6an amaituko da Ataunen jokatuko diren bi saioekin. Hilabeteko epean 24 saio jokatu dira guztira herrialdean, 74 bertsolariaren parte-hartzearekin. Bi itzulitara jokatu ari da Gipuzkoa Bertsoan, goizez zein arratsaldez kantatzen baitute bertsolariak.

74 horietatik *Gipuzkoa Bertso*aneko lehenengo 30 bertsolariak lortuko dute Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako sailkatzea. Aurretik, beste 13 bertsolari daude Txapelketarako zuzenean sailkatuta, 2011koan lortu zuten postuari esker.

Bertsolari horiekin guztiarekin irailaren 20an abiatuko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa eta abenduaren 20an amaituko da, Donostian jokatu den finalarekin. Txapelketaren inguruko xehetasun guztiak irailan jasoko dituzue.

Bertsolaritza ikertzeko kontratua eta sariak

Bertsolaritzari buruzko ikerketa zientifikoa bultzatzea da Mintzola Fundazioaren helburuetako bat.

Xede horrekin, Mintzolak ikerketa kontratuaren eta ikerketa proiektu sarien deialdi berri bat egin du. Mintzolarekin batera, EHUko Mikel Laboa Katedrak eta Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzak prestatu dute deialdia. Batetik, bertsolari buruzko doktorego tesi bat egiteko kontratu deialdia egin du Mintzolak. Bestetik, aurkeztzen diren lanen artean, hiru sari banatuko ditu, bakoitza 2.000 eurokoa. Kasu honetan, master amaierako proiektuei lehentasuna emango zaie. Lanak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da.

Bata zein bestearen gaineko informazioa osoa www.mintzola.eus webgunean aurkituko duzue.

Egin jauzi digitalera!

Jaso ezazu BertsoZalea posta elektronikoan...

- + Ekologiari begirunez, paper gutxiago erabiltzeko
- + Elkartearen gastu ekonomikoak murrizteko
- + Sarean argitaratu baino lehen edukitzeko



Idatzi komunikazioa@bertsozale.eus helbidera BertsoZalea digitalean jasotzeko



Puntu jarrita

OIHANA BARTRA

Bai, Malen. Ze ondo egiten dudan bertsoan bilborrata (bai, bai, bilborrata) izateko, edo ez dut hain txarto egiten bilbotarra eta emakumea izateko. Holako komentario **azertuak** entzun behar izan ditugu ni lako askok. Eta irribarre izan nahi zuen zerbaitekin erantzun, orain arte.

Izan ere, orain urte batzuk hori entzun eta nire burua nola inurri baten tamainakoa bihurtzen zen nabaritzen nuen. Hori esan zuen gizonazko heldu samarrari keinu egin, isildu eta aurrera. Gero eta txikiago. Gero eta akonplejatuago.

14 urte nituenean, ez nuen bertsoan topatu nuen giroan enkajutzen. Neskato bilbotar pijo euskara batuduna nintzen haien begietara. Ez nuen gehiengoak bezala hitz egiten, batzuei ez nien esaten zuten guztia ulertzen, eta nire bertsoan egiteko modua ere ezberdina zen. Ezberdina berdin txarragoa, noski (nire pertzepzioan).

Baina hala ere, bertsoan egin nahi nuen, haietako bat izan. Horretarako, batzuetan nire ezaugarri zirenak, ostentzen ahalegindu nintzen: beste modu batez jantzi, beraiek bezala berba egiten saiatu... Baina ezin nuen, ez zitzaidan ateratzen. Eta denborarekin ohartu nintzen, gainera, ez zela behar, ez nuela zertan munduarekiko eta batez ere neure buruarekiko borroka konstantean bizi. Ni izan nintekeela: urbanita, lotsatia baina pixka bat makarra, beste euskara molde bat erabiltzen zuena.

Orain arte irribarre izan nahi zuen batekin erantzuten nuela esan dut. Orain, berriz, irribarre osoa da nire erantzuna. Irribarrea, badakidalako oraindik ere bateren bati arraro suerta dakiokela "emakume", "bilbotar" eta "bertsolari" hitzak esaldi berean jostea. Baina, batez ere, orain badakidalako ezberdin ez dela berdin txarrago. Ezberdin ezberdin da.

Egun bilbotarra, emakumea eta bertsolaria izatea nire ezaugarriak dira, bai. Ez bakarrak, baina nireak. Nire munduari begiratzeko modua eraikitzen lagundu dutenak. Ezelako konplexu barik. Eta konplexu barik jarduteari buruz asko dakizu zuk ere, ezta Miren Artetxe?

Koplak

Lehenengo Genero Topaketa egin zen maiatzean

Bertsolaritzako alor ezberdinetan ari diren emakume eta gizonak elkartu, eta generoaz diren ikuspegiak eta kezka nagusiak partekatzeke helburuarekin sortu da Genero Topaketa. Aurtengo topaketa bertsolarietara eta sustapen alorrean dabiltzan hainbat eragilerekina egin zen maiatzean eta 22 partaide elkartu ziren bertan. Topaketa Miren Guilló eta Mikel Otxotorenak dinamizatu zuten, biak ere feminismoan eta parte-hartze dinamiketan esperientziadunak. Topaketa urtean behin egitea da asmoa, aldiro partaide ezberdinekin.

Poto-Finixa



Uda giroa, bertso-udalekuetan.

Bertsozale Elkartea

Udan, bertso-udalekuen txanda

Bertso-udalekuen 18. edizioa egingo da udan. 9 eta 18 urte bitarteko haur eta gaztetxoek hartuko dute parte bertso-udalekuetan, Irañeta, Maule, Muxika, Orio eta Zuhatza herrietan. Uztailen eta abuztuan izango dira aurtengo txandak, eta hainbat ekimen burutuko dira bertsolarietaz gozatu, tokian tokiko eragileak ezagutu eta beste herrialdeetako lagunak eginez: bertso afariak, kantaldiak, txangoak, showak, udalekuetako diskoa...

Eneko Dorrnsoroaren dokumentala

Kontratazioak eta informazio gehiago:

Lanku
www.lanku.com
675 716 472

